Indarrean den Prezio Publikoen Ordenantzan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonek prezio murriztuak edo bereziak izango dituzte eta, horretarako, izena ematean dagokion egoera justifikatzeko agiriak aurkeztea nahitaezkoa izango da.

Behin ekintza hasita baja eman nahi duten erabiltzaileek Kultura sailari idatziz jakinarazi beharko diote. Ekintza kuota bakarrekoa bada, ez da dirurik itzuliko (ez osorik, ez zatirik). Ekintza hainbat kuotatan banatuta badago (hilekoa, hiruhilabetekoa...), baja idatziz jakinarazi ondorengo kuotak ez dira kobratuko. Kuotaz gain matrikula ere ordaindu bada, ez da matrikularen dirua itzuliko (ez osorik, ez zatirik).

III. KAPITULUA. ERRIBERA KULTURGUNEAREN ESPAZIOEN ERABILERA PRIBATIBORAKO ARAUAK

*13. artikulua. Erabil daitezkeen espazioak.*

Erriberako espazio batzuen erabilera pribatiboa egiteko aukera dago, hain zuzen, espazio hauek daude udalaz kanpoko erabiltzaileentzat erabilgarri:

— Antzokia eta aldagelak.

— Atari estalia.

— Batzar aretoa.

— Bilera gelak.

— Dantza aretoa.

— Entsegu gelak.

— Elkarteentzako gelak.

— Erakusketa aretoa.

— Ikasgela.

— Kzgunea.

— Musika eskola.

— Plastika gela.

— Sukaldea.

— Terraza.

— Yoga-gela.

Dena den, udalak interes publikoko arrazoiak direla-eta, erabaki dezake horietako espazioren bat erabilera pribatutik kanpo uztea. Kasu horretan, aurretik emandako baimenak indarrik gabe geldituko dira, eta eskatzaileak ez du horregatik kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik izango.

*14. artikulua. Espazio pribatiboen arauak.*

Espazio horiek erabiltzeko arauak III. tituluan xedatutakora egokituko dira, eta erabilera baimentzeko akordioan zehaztuko dira.

III. TITULUA

ESPAZIOEN ERABILERA PRIBATURAKO ESKAERAK, BALDINTZAK ETA BAIMENAK

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

*15. artikulua. Helburua.*

Erribera kulturgunea jabari publikoko ondasuna denez, 13. artikuluan deskribatutako guneen erabilera pribatiboa egiteko aukera aurreikusten da. Erabilera horrek titulu honetan ezarritako betekizun eta mugak bete behar ditu, eta nahitaezkoa izango da aldez aurretik udalaren baimena izatea.

Las personas que cumplan los requisitos establecidos en la Ordenanza de Precios Públicos vigente tendrán precios reducidos o especiales, para lo cual será preceptiva la presentación de la correspondiente documentación justificativa durante la inscripción.

Una vez iniciada la actividad, las personas usuarias que deseen darse de baja deberán comunicarlo por escrito al Departamento de Cultura. Si la actividad es de una única cuota, no se devolverá la cantidad abonada (ni total ni parcialmente). Si la actividad está dividida en varias cuotas (mensual, trimestral), no se cobrarán las cuotas posteriores a la comunicación de la baja por escrito. Si además de la cuota se ha abonado la matrícula, no se devolverá el importe de la matrícula (ni total ni parcialmente).

CAPÍTULO III. NORMAS PARA EL USO PRIVATIVO DE LOS ESPACIOS DE ERRIBERA KULTURGUNEA

*Artículo 13. Espacios utilizables.*

Está permitido el uso privativo de algunos espacios de Erribera kulturgunea, concretamente están disponibles para usuarias externas al Ayuntamiento:

— Teatro y vestuarios.

— Soportal cubierto.

— Sala de juntas.

— Salas de reuniones.

— Sala de baile.

— Salas de ensayo.

— Salas para asociaciones.

— Sala de exposiciones.

— Aula de estudio.

— Kzgunea.

— Escuela de música.

— Sala de plástica.

— Cocina.

— Terraza.

— Sala de yoga.

No obstante, el Ayuntamiento, por razones de interés público, podrá denegar el uso privativo de algunos de esos espacios. En ese caso, quedarán sin efecto las licencias anteriormente concedidas, sin que la persona solicitante tenga derecho a indemnización alguna.

*Artículo 14. Normas de los espacios privativos.*

Las normas de utilización de estos espacios se ajustarán a lo dispuesto en el Título III y se concretarán en el acuerdo de autorización de uso.

TÍTULO III

SOLICITUDES, CONDICIONES Y AUTORIZACIONES PARA EL USO PRIVATIVO DE ESPACIOS

CAPÍTULO I. DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 15. Finalidad.*

Dado que Erribera kulturgunea es un bien de dominio público, se prevé la posibilidad de hacer un uso privativo de los espacios descritos en el artículo 13. Dicho uso deberá cumplir los requisitos y limitaciones establecidos en el presente título, y será necesaria la autorización municipal previa.

EK\CV GAO-I-2021-08187

*16. artikulua. Erabilera motak.*

Erriberako guneak erabiltzeko bi era ezartzen dira:

— Ikasturteko erabilera baimenak, gutxienez 6 hilabetez segidan garatzen diren ekintzak egiteko dira.

— Denboraldiko erabilera baimenak, hilabete batetik seira bitarteko segidan garatzen diren ekintzak egiteko dira.

— Unean uneko erabilera baimenak. Egun solteko edo hilabete baten barne garatzen diren ekintzak egiteko dira. Unean uneko erreserben bitartez 13. artikuluan jasota eta erabilgarri dauden instalazioak erabil daitezke.

*17. artikulua. Erabiltzaileak.*

1. Erriberako guneak erabiltzeko baimena eska dezakete:

— Norbanakoak (adinez nagusiak).

— Herriko elkarteak eta erakunde publikoak.

— Herrikoak ez diren elkarte, erakunde publiko eta eragileak.

— Udal taldeak (udal ordezkaritza duten alderdi politikoak).

— Jabekideen erkidegoak eta pertsona juridikoak.

— Dirua irabazteko asmoa duten erakundeak.

2. Pertsona juridikoen kasuan, bere xedea ezingo du izan udalak onartuta dituen irizpide, plan edo protokoloen kontrakoa (hizkuntza, emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna, indarkeriaren aurka, ingurugiroa…).

3. Xede komertziala duten ekitaldiak mugatuta egongo dira eta ez zaie erabiltzeko baimenik emango, xede komertziala besterik ez eta publiko orokorrarentzat diren jarduerei edo kontsumoa, bortizkeria edo edozein eratako bazterkeria sustatzen duten ekintzei. Erritu erlijiosoak egiteko ere ez da erabiltzeko baimenik emango.

4. Xede politikoa duten jarduera edo ekitaldiak ere mugatuta egongo dira eta Astigarragako udalean ordezkaritza duten alderdiek bakarrik izango dute Erriberako gelak unean unean erabiltzeko aukera, araudi honetan ezarritako prozedura jarraituz eta zerga ordenantzetan jasotako baldintzen arabera.

Muga honetatik kanpo gelditzen dira hauteskunde prozesuak direla-eta udalak har ditzakeen erabakiak.

II. KAPITULUA. ERABILERA PRIBATURAKO ESPAZIOAK

I. SEKZIOA. Erabilera espazioak

*18. artikulua. Erabilerarako espazioak.*

1. Erabilera guztiak udalaren baimenaren menpe daude. Udalak kalitatearen, helburuen edo udal-politikaren arabera aztertuko du eskaera bakoitza, eta bere egiten du ekitaldi bat egiteko baimena emateko edo ukatzeko eskubidea.

2. Espazioen erabilerak udaleko eskuhartzearen menpe egongo dira. Eskuhartze horretan, ezinbestekoa bada, baimendutako erabilera-ordutegia aldatu edo eten daiteke, erreklamaziorik egiteko aukerarik gabe. Hala ere, ahal bada, horrelako erabakiak 48 ordu lehenago jakinaraziko dira. Halaber, Erriberako arduradunek instalazioak erabiltzaileei eta publiko orokorrari ixtea erabaki dezakete, istripu edo segurtasun arriskuren bat aurreikusten badute.

3. Erriberan egiten diren ekintza guztietan erabilera egokia bermatzeko arduradun bat egongo da.

4. Erabilera-eskaera egiten duena adin nagusikoa izango da.

5. Instalazioen erabilera txarragatik edo arduragabekeriagatik apurtutako materiala konpontzea edo berrezartzea erabilera-eskaera egin duen eskatzailearen kontura izango da.

*Artículo 16. Tipos de utilización de los espacios.*

Se establecen tres formas de utilización de los espacios de Erribera:

— Actividades de curso: actividades desarrolladas de forma continuada al menos durante 6 meses.

— Actividades de temporada: de uno a seis meses consecutivos.

— Actividades puntuales: actividades de un día o hasta un mes como máximo. Mediante reservas puntuales, podrán utilizarse los espacios citados en el artículo 13 (siempre que estén disponibles).

*Artículo 17. De las personas usuarias.*

1. Podrán solicitar autorización de uso de los espacios de Erribera:

— Particulares (mayores de edad).

— Asociaciones locales y entes públicos.

— Asociaciones, entidades públicas y agentes no locales.

— Grupos políticos con representación municipal.

— Comunidades de propietarios y personas jurídicas.

— Entidades con ánimo de lucro.

2. En el caso de las personas jurídicas, su finalidad no podrá ser contraria a los criterios, planes y protocolos aprobados por el Ayuntamiento (lingüísticos, igualdad entre mujeres y hombres, en contra de la violencia, medio ambiente…).

3. Los eventos con fines comerciales estarán restringidos y no se concederán licencias de uso a actividades con fines meramente comerciales destinadas al público en general, o a actividades que promuevan el consumo, la violencia o cualquier tipo de discriminación. Tampoco se autorizará el uso de las instalaciones para la realización de ritos religiosos.

4. Asimismo estarán restringidas las actividades o eventos con fines políticos y únicamente podrán utilizar las instalaciones de Erribera las formaciones políticas representadas en el Ayuntamiento de Astigarraga, siguiendo el procedimiento establecido en el presente reglamento y en los términos recogidos en las ordenanzas fiscales.

Quedan fuera de esta restricción las resoluciones que pueda adoptar el Ayuntamiento en relación con los procesos electorales.

CAPÍTULO II. ESPACIOS PARA USO PRIVATIVO

SECCIÓN I. Espacios de uso

*Artículo 18. Espacios de uso.*

1. Todos los usos estarán sujetos a autorización municipal. El Ayuntamiento estudiará cada solicitud en función de su calidad, objetivos o política municipal, asumiendo el derecho a autorizar o denegar la celebración de un evento.

2. Los usos de los espacios estarán sujetos a intervención municipal. Esta intervención podrá conllevar, en caso de fuerza mayor, la modificación o interrupción del horario de uso autorizado, sin posibilidad de reclamación. No obstante, si es posible, este tipo de acuerdos se notificarán con 48 horas de antelación. Asimismo, los responsables de Erribera podrán acordar el cierre de las instalaciones a usuarias y público en general en caso de que prevean algún riesgo para su seguridad.

3. Todas las actividades realizadas en Erribera contarán con un responsable de buen uso.

4. La persona solicitante del uso deberá ser mayor de edad.

5. La reparación o reposición del material dañado por negligencia o mal uso de las instalaciones será a cargo de la persona solicitante que haya formulado la solicitud.

EK\CV GAO-I-2021-08187

6. Udalak kasu bakoitzean ezarritako baldintzen arabera emango du baimena.

7. Erriberako areto eta gelak erabiltzeko, Udalak urtero argitaratuko dituen ordenantza fiskaletan jasoko den tasa ordaindu beharko da. Bertan jasoko da ere, zein kasutan aplikatuko den tasen salbuespena eta zeinetan horien gaineko igoera.

*19. artikulua. Erabilera baldintzak.*

Pertsona fisikoek zein juridikoek (elkarteak, jabekideen erkidegoa, enpresak...) eskatu dezakete, antolatzen den ekitaldien helburua ez badoa udalak onartuta dituen irizpide, plan edo protokoloen kontrakoa (hizkuntza, emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna, indarkeriaren aurka, ingurugiroa...). Halaber, pertsona juridikoen kasuan, bere xedea ezingo da irizpide, plan edo protokolo horien kontrakoa izan.

Pertsona fisikoek adinez nagusiak izan beharko dute, eta pertsona juridikoek adinez nagusia den arduradun bat izendatu beharko dute.

Ekitaldiaren data baino 6 aste lehenago arte, lehentasuna izango dute, udalaren dirulaguntzaren bat jasotzen duten herriko elkarteek eta udal taldeek, eta ondoren herrian egoitza duten entitateek.

Eskatzailearen ardurapekoa izango da erabiliko den aretoaren altzari eta materialaren erabilera zuzena egitea eta, erabileraren ondorioz kalteren bat sortuz gero, horien konponketa bere gain joango da.

Eskaerak ez dira onartutatzat emango udalak idatziz jakinarazi arte eta dagokion tasa ordaindu arte, ez bada udal zerga ordenantzen arabera horren ordainketaz salbuetsita dagoela. Azken kasu horietan, alderdi hori baimen-akordioan adieraziko da.

II. SEKZIOA. Espazio bereziak

*20. artikulua. Elkarteentzako gelak.*

Herriko elkarteek beren jarduerarako erabil ditzaketen espazioak dira. Hauek erabiltzeko lehentasuna izango dute herriko kultur taldeek, eta horien ondoren hezkuntza eta aisialdiarekin lotura duten elkarteek.

Elkarteek ikasturteko eta denboraldiko erabilerarako nahi dituzten gelen eskaerak 25 artikuluari jarraiki egin behar dira, eta gutxienez datu hauek adierazi beharko dituzte: erabiltzaileak eta kopurua, zein egun eta ordutan behar duten gela, helburua, eta behar material/teknikoak; eta ikastaro edo formazio saioa antolatzeko bada 11.2 artikuluan jasotakoak ere.

Gela baimentzeko akordioan jasoko dira, besteak beste, erabilera-baldintzak eta iraupena. Erabilera baimena bukatzean elkarteek aukera dute berritzeko, baina horretarako eskaera berri bat egin beharko dute, eta gela bera izatea nahi badute, eskaera hori baimena iraungitu aurretik egin beharko da.

Bi motako erabilera bereizten dira, taldeentzako gelei dagokienez:

— Talde batzuek egun edota ordutegi zabal batean okupatuko dute gela, eta horrek haren balioaniztasuna mugatzen du, baina ez du eragozten.

— Talde batzuek egun edota ordutegi zehatzetan bakarrik erabiliko dute gela, eta horrek haren balioaniztasunerako aukera gehiago ematen du.

Bi kasuetan baimenean edo hitzarmenean beti jasoko da erabileraren egutegi eta ordutegi zehatza, izan egun jakin batean erabiltzeko nola urte osoko erabilerari dagokiona.

6. El Ayuntamiento otorgará la autorización de uso de las instalaciones en las condiciones que en cada caso se establezcan.

7. La utilización de las salas y dependencias de Erribera estará sujeta al pago de la tasa fijada en las ordenanzas fiscales que anualmente publicará el Ayuntamiento. Asimismo, se recogerán los supuestos en los que se aplicará la exención de tasas y el incremento sobre las mismas.

*Artículo 19. Condiciones de uso.*

Podrán solicitar el uso de las instalaciones las personas físicas o jurídicas (asociaciones, comunidades de propietarios/as, empresas...), siempre que la finalidad del acto no sea contraria a los criterios, planes o protocolos del Ayuntamiento (lingüísticos, igualdad entre mujeres y hombres, violencia, medio ambiente...). En el caso de las personas jurídicas, su objeto no podrá ser contrario a dichos criterios, planes o protocolos.

Las personas físicas deberán ser mayores de edad y las personas jurídicas deberán designar una persona responsable mayor de edad.

Hasta 6 semanas antes de la fecha del evento, tendrán prioridad las asociaciones locales y los grupos municipales que reciban alguna subvención municipal y, en segundo lugar, las entidades que tengan su sede en el municipio.

La persona solicitante será responsable del correcto uso del mobiliario y material del espacio utilizado, y si como consecuencia del uso se produjera algún daño, la reparación correrá a su cargo.

Las solicitudes no se considerarán admitidas hasta que el Ayuntamiento lo comunique por escrito y se abone la tasa correspondiente, salvo que esté exento de su pago de acuerdo con las ordenanzas fiscales municipales. En ese último caso, así se hará constar en el acuerdo de autorización.

SECCIÓN II. Espacios singulares

*Artículo 20. Salas para asociaciones.*

Son los espacios utilizados por las asociaciones locales. Tendrán preferencia los grupos culturales del municipio y, en segundo lugar, las asociaciones relacionadas con la educación y el tiempo libre.

Las solicitudes de aulas para uso de curso y/o temporada que realicen las asociaciones se harán de acuerdo al artículo 25, y deberán contener, al menos, los siguientes datos: personas usuarias y número, día y hora que se necesitará la sala, finalidad y necesidades materiales/técnicas, así como los contemplados en el artículo 11.2 para la organización de cursos o sesiones formativas.

El acuerdo de autorización incluirá, entre otros, la duración y las condiciones de uso. Una vez finalizada la autorización, las asociaciones podrán renovarla, para lo cual deberán realizar una nueva solicitud, y si quieren continuar utilizando el mismo espacio, dicha solicitud deberá realizarse antes de la caducidad de la autorización.

Se distinguen dos tipos de uso en cuanto a aulas para asociaciones:

— Algunos grupos utilizarán el aula durante periodos y horarios amplios, lo que limitará su polivalencia, aunque no la impedirá.

— Otros grupos sólo utilizarán el aula en días y/u horarios concretos, lo que facilitará su polivalencia.

En ambos casos, en la licencia o convenio se hará constar siempre el calendario y horario concreto de utilización, ya sea para un día determinado o para un año completo.

EK\CV GAO-I-2021-08187

Balioanitzak diren gelak unean-unean erabiltzean, taldearen jardueraren ordutegia eta bertan dagoen materiala errespetatu beharko da beti. Taldeari gelan antolatutako beste edozein jardueraren berri emango zaio.

Gela maiztasunez erabiltzeko baimena dutenek, bertan materiala eta dokumentuak gordetzeko aukera izango dute, betiere modu txukunean egiten badute. Ikasturte bukaeran garbitu, berrantolatu eta beharrezkoa dena bakarrik gorde beharko dute.

*21. artikulua. Erakusketa-aretoa.*

1. Norbanako, elkarte edo beste eragileren batek bertan artelanak erakusgai jartzeko aukera izango du, beti ere erakutsi nahi diren artelanek maila artistiko eta estetiko egokia badute.

2. Udalak bere esku dituen materialak (panelak, mahaiak...) utziko ditu erakusketarako hala behar baldin badira; eta eskatzailea izango da utzitako material horren ardura hartuko duena. Material horretatik kanpo dituzten beharrak bere esku geldituko dira.

3. Erriberaren jendaurreko ordutegi bera izango du, baina, zaintza bermatzen bada, ordutegi zabalagoa edo asteburuetan ere ireki ahal izango da. Zaintza-lanak eskatzailearen kontura izango dira.

4. Udalak ez du bere gain hartuko erakusgaien inguruko kalteak edo lapurretak. Beraz, erabiltzaileen esku egongo da bere artelanen gaineko asegurua egitea.

*22. artikulua. Antzokia eta terraza.*

1. Antzokia eta terraza, haren aforoa eta baliabide tekniko-eszenikoak direla eta, espazio bereziak dira. Ekitaldiak gidatuko dituzten pertsonek espazioaren autobabeserako planean agertzen diren segurtasunarekin erlazionaturiko postuak beteko dituzte eta ezagutza tekniko eszenikoa izango dute. Ekitaldiak egiteko aukera bermatzeko, Astigarragako Udalak baliabide horiek jartzen ditu.

2. Kultur ekitaldi eta jarduerak eskaintzeko eskaerak.

Astigarragako elkarteek, ikastetxeek eta kultur ekitaldiak sortu dituzten dirua irabazteko asmoa duten erakundeek eta herrikoak ez diren eragileek erabili ahal izango dute jarraian adierazitako baldintzapean eta mugekin.

Bi hilabete lehenago kultura sailari aurreikusitako ekitaldiaren berri eman beharko zaio, eta ekitaldia egin baino 6 aste lehenago, data zehatza, ekitaldiaren ezaugarri nagusiak eman eta espazioa erabiltzeko eskaera ofiziala aurkeztuko da.

2.A. Eskatzaileek sortutako kultur ekitaldiak:

2.A.1. Ikasleak dituzten herriko elkarteak eta herriko ikastetxeak.

Antzokia edo terraza, zerbitzu guztiekin, urtean 4 aldiz erabil dezakete doan (dena den ikasle kopuruaren arabera, Udalak erabaki dezake hori aldatzea), beraiek sortutako edukien emanaldiak egiteko, baldin eta hala jasota badago hitzarmenean eta udalak bere gain hartuko du espazioaren, teknikari eszenikoen, sarrera-sistemaren eta aforoaren kontrola, baldin eta kanpoko zerbitzuetako lanak, B atalekoekin batera, urteko 20 orduko muga gainditzen ez badu. Hortik aurrerako gastua elkarteen kontura izango da. Emanaldi bakoitzeko, entsegu orokor bat egiteko aukera izango dute. Elkarteek erabakiko dute lau emanaldi horietan sarrera kobratuko den ala ez. Kasu berezietan, 2 entsegu egitea baimenduko da.

El uso puntual de las salas polivalentes deberá respetar en todo momento el horario de actividad del grupo y el material existente en las mismas. Se informará al grupo de cualquier otra actividad organizada en el aula.

Las personas autorizadas para el uso regular del aula podrán guardar material y documentación en la misma, siempre que lo hagan de forma ordenada. A final de curso deberán limpiar, reorganizar y guardar únicamente lo necesario.

*Artículo 21. Sala de exposiciones.*

1. Podrán exponer obras de arte personas particulares, asociaciones o distintos agentes, siempre que las obras expuestas tengan un nivel artístico y estético adecuado.

2. El Ayuntamiento aportará los materiales (paneles, mesas...) a su disposición en caso de ser necesarios para la exposición, siendo la persona solicitante la encargada de hacerse cargo del material cedido. El material restante necesario correrá a cargo de la persona solicitante.

3. La Sala de Exposiciones tendrá el mismo horario que el horario de atención al público de Erribera, si bien podrá disponer de un horario más amplio, o abrirse los fines de semana, siempre que se garantice la vigilancia, que correrá a cargo de la persona solicitante.

4. El Ayuntamiento no se responsabilizará de los daños o robos que se produzcan en relación con las obras expuestas. Por tanto, serán las personas organizadoras de la exposición las que consideren la posibilidad de contratar un seguro.

*Artículo 22. Teatro y terraza.*

1. El teatro es un espacio singular por su aforo y medios técnico-escénicos. Las personas que dirijan los eventos ocuparán los puestos relacionados con la seguridad que figuran en el plan de autoprotección espacial, y tendrán conocimientos técnicos-escénicos. El Ayuntamiento de Astigarraga pondrá esos recursos para garantizar la celebración de eventos.

2. Solicitudes para eventos y actividades culturales.

Las asociaciones de Astigarraga, centros educativos, entidades con ánimo de lucro y distintos agentes de fuera del municipio que hayan creado un evento cultural, podrán utilizar las instalaciones con las condiciones y limitaciones que se indican a continuación.

Con 2 meses de antelación deberá informarse al Departamento de Cultura de los actos previstos, y 6 semanas antes de la celebración del evento se indicará la fecha exacta y las principales características del evento. Asimismo, se presentará la solicitud oficial de uso de la instalación.

2.A. Eventos culturales creados por los solicitantes:

2.A.1. Asociaciones locales con alumnado y centros escolares de la localidad.

El teatro o terraza, con todos sus servicios, podrá ser utilizado gratuitamente 4 veces al año (sin perjuicio de que el Ayuntamiento decida introducir alguna modificación en función del número de alumnos) para la realización de actuaciones de contenidos creados por dichas asociaciones, siempre que así esté previsto en el convenio, en cuyo caso el Ayuntamiento asumirá el control del espacio, control técnico-escénico, sistema de acceso y aforo, y siempre que el trabajo de los servicios externos, junto con los del apartado B, no supere el límite de 20 horas anuales. A partir de ese límite, el gasto correrá a cargo de las asociaciones. Podrán realizar un ensayo general por cada actuación. En esas 4 actuaciones será decisión de las asociaciones cobrar o no las entradas. En casos especiales se permitirá la realización de 2 ensayos.

EK\CV GAO-I-2021-08187

2.A.2. Herrian erroldatuta dauden gainontzeko elkarte edo erakunde publikoak.

Antzokia edo terraza, zerbitzu guztiekin, urtean bitan erabil dezakete doan (dena den ikasle kopuru arabera Udalak erabaki dezake hori aldatzea) beraiek sortutako edukien emanaldiak egiteko, eta udalak espazioaren, teknikari eszenikoen, sarrera-sistemaren eta aforoaren kontrola hartuko du bere gain, kanpoko zerbitzuetako lanak, B atalekoekin batera, urteko 10 orduko muga gainditzen ez badu. Hortik aurrerakoa elkarte edo erakunde publikoen kontura izango da. Emanaldi bakoitzeko, aurrez entsegu orokor bat egiteko aukera izango dute. Eragileek erabakiko dute emanaldi horretan sarrera kobratuko den ala ez.

2.A.3. Dirua irabazteko asmoa duten erakundeek eta herrikoak ez diren eragileek antzokia edo terraza erabil ahal izango dute hiru baldintza hauek betez gero:

— Emanaldiak udalaren kultur programazioaren irizpideak jarraitzea.

— Harrera- eta teknikari-gastuak bere gain hartzea, ezinbestekoa izanik lan horiek udalak adierazitako zerbitzu-enpresek egitea.

— Emanaldia dohakoa eta irekia izatea, eta aforoaren % 15 eta % 30a bitarte geratuko da eskatzailearen esku.

Herrikoak ez diren kanpoko erakunde kulturalek edo erakunde publikoek tasaren salbuespena lor dezakete, ekimenak Astigarragako herriari ekarriko dion onura egoki justifikatu eta Udalak ontzat ematen badu. Salbuespen hori gehienez urtean behin eman daiteke erakunde bakoitzeko.

2.B. Elkarteek programatutako kultur jarduerak:

Kontratatuko diren jarduerek elkartearen jarduera eta helburuen xede izan behar du.

Emanaldia udalaren kultur programazioaren irizpideak jarraitu beharko ditu, eta 2 hilabete lehenago kultura sailari aurreikusitako ekitaldien berri eman beharko zaio eta ekitaldia egin baino 6 aste lehenago, data zehatza, ekitaldiaren ezaugarri nagusiak eta espazioa erabiltzeko eskaera ofiziala aurkeztuko da.

Emanaldi hauen sarrera-prezioa udalak mota horretako ekitaldietarako onartua duena izango da. Zenbateko desberdin kobratzekotan espazio hau erabiltzeko eskaeran zehaztu beharko da sarrera-prezioa eta aldaketaren arrazoia justifikatu. Salbuespen horren onarpena udalaren erabilera-akordioan jasoko da, alkatearen dekretuz hartuko dena, horrek ez badu beste organo batean eskuordetzen.

1) Programatutako jarduerarentzako udalaren laguntzaren bat dutenak.

Antzokia edo terraza, zerbitzu guztiekin, bitan erabil dezakete doan programatutako edukien emanaldiak egiteko, eta udalak espazioaren, teknikari eszenikoen, sarrera-sistemaren eta aforoaren kontrola hartuko du bere gain, baldin eta kanpoko zerbitzuetako lanak, A atalekoekin batera, 20 orduko muga gainditzen ez badu. Hortik aurrerakoa elkarteen kontura izango da.

2) Herriko gainerako elkarteek bere gain hartuko dituzte espazioaren ardura eta gastu guztiak.

3. Kultur ekitaldi eta jarduerak ez direnak antolatzeko eskaerak.

Pertsona fisiko zein juridikoek (elkarteak, jabekideen erkidegoak, enpresak...) eska dezakete, antolatzen den ekitaldien helburua ez badoa udalak onartuta dituen arau eta irizpideen aurka: hizkuntza, emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna, indarkeria, ingurugiro... eta beste edozein arloko plan edo protokoloren aurka. Halaber, pertsona juridikoen kasuan, bere xedea ezingo da irizpide, plan edo protokolo horien kontrakoa izan.

2.A.2. Otras asociaciones o entidades públicas con sede en el municipio.

El teatro o terraza, con todos sus servicios, podrá ser utilizado gratuitamente 2 veces al año (sin perjuicio de que el Ayuntamiento decida introducir alguna modificación en función del número de alumnos) para la realización de actuaciones de contenidos creados por dichas asociaciones, en cuyo caso el Ayuntamiento asumirá el control del espacio,, control técnico-escénico, sistema de acceso y aforo, y siempre que el trabajo de los servicios externos, junto con los del apartado B, no supere el límite de 10 horas anuales. A partir de ese límite, el gasto correrá a cargo de las asociaciones o entidades públicas. Podrán realizar un ensayo general por cada actuación. Será decisión de las asociaciones cobrar o no las entradas de dichas actuaciones.

2.A.3. Las entidades con ánimo de lucro y los agentes ajenos a la localidad podrán utilizar el teatro o la terraza siempre que se cumplan las siguientes condiciones:

— Cumplir los criterios de la programación cultural municipal.

— Asumir los gastos de recepción y de personal técnico, que deberán ser realizados por las empresas de servicios designadas por el Ayuntamiento.

— Los eventos deberán ser abiertos y gratuitos, quedando a disposición del solicitante el 15-30 % del aforo.

Las entidades culturales o públicas ajenas a la localidad estarán exentas de abonar la tasa si justifican adecuadamente el posible beneficio para el municipio de Astigarraga y cuentan con la aprobación del Ayuntamiento. Esta exención podrá concederse como máximo una vez al año por entidad.

2.B. Actividades culturales programadas por las asociaciones:

Las actividades que programen deberán coincidir con los objetivos y el ámbito de actuación de la asociación.

El evento deberá cumplir los criterios de la programación cultural municipal y el Departamento de Cultura será informado de los actos previstos con 2 meses de antelación. 6 semanas antes del evento, se indicarán la fecha exacta y las principales características de la actuación, y se presentará la solicitud oficial de uso del espacio.

El precio de las entradas deberá ser el aprobado por el Ayuntamiento para este tipo de eventos. En el caso de cobrarse cantidades diferentes, deberá especificarse el precio de la entrada en la solicitud de utilización y justificar el motivo del cambio. La aprobación de esta excepción se hará constar en el acuerdo de utilización municipal, que se adoptará por decreto del Alcalde, salvo delegación en otro órgano.

1) Asociaciones que cuentan con alguna ayuda municipal para la actividad programada.

El teatro o terraza, con todos sus servicios, podrá utilizarse 2 veces gratuitamente para el evento programado, asumiendo el Ayuntamiento el control del espacio, control técnico-escénico, sistema de acceso y aforo, siempre que el trabajo de los servicios externos, junto con los de la sección A, no supere el límite de 20 horas. A partir de ahí, el gasto correrá a cargo de las asociaciones.

2) El resto de asociaciones locales asumirán todas las responsabilidades y gastos ligados a la utilización del espacio.

3. Solicitudes para organización de eventos y actividades no culturales.

Las personas físicas o jurídicas (asociaciones, comunidades de propietarios/as, empresas...) podrán solicitarla si el objetivo de la actividad organizada no es contrario a los criterios y normas aprobadas por el Ayuntamiento, ya sean lingüísticos, de igualdad entre mujeres y hombres, violencia, medio ambiente... o vayan en contra de planes o protocolos aprobados por el Ayuntamiento en distintas materias. En el caso de las personas jurídicas, su objeto no podrá ser contrario a dichos criterios, planes o protocolos.

EK\CV GAO-I-2021-08187

Halaber, Astigarragako udaleko udal-taldeek antzokia edo terraza urtean bitan erabiltzeko aukera izango dute. Emanaldi edo saioak udalerriko gaiekin zerikusia baldin badu, zerga ordenantzan jasotako salbuespena izango du eta eragindako bestelako gastuak (teknikari, harrera...) Udalak hartuko ditu bere gain. Emanaldi edo saioaren gaia bestelakoa baldin bada, dagokion tasa ordaindu beharko da eta eragindako bestelako gastuak (teknikari, harrera...) udal-taldeak ordainduko ditu.

Udalak berak –bai gobernu taldearen ekimenez, bai oposizioko udal-taldeek proposatuta– herritarrekin antolatzen dituen batzar eta bilerak artikulu honetan ezarritako mugetatik kanpo gelditzen dira.

Ekitaldiaren data baino 6 aste lehenago arte, lehentasuna izango dute, udalaren diru-laguntzaren bat jasotzen duten herriko elkarteek eta udal-taldeek, eta ondoren herrian egoitza dutenek.

*23. artikulua. Sukaldea.*

Sukaldearen doako erabilera Erriberan lan egiten duten langileetara mugatuko da, izan Udalekoak, musika eskolakoak edo Erriberan lan egiteko azpikontratatutako enpresakoak, betiere beren laneko egunetako otorduetarako erabiltzeko bada. Udalak antolatutako sukaldaritza-ikastaroetarako ere erabili ahal izango da. Erriberako beste aretoren bat alokatzen dutenek bakarrik izango dute sukaldea alokatzeko aukera.

III. KAPITULUA. ERABILERA BAIMEN-ESKAERA

*24. artikulua. Erabilera-baimena eskatzeko bete beharreko baldintzak.*

1. Denboraldiko erabilera eskatzeko arau hauek bete behar dira:

a) Udalak aurreikusi edo ohikoa den programazio-beharren ondoren libre geratzen diren espazioak erabiltzeko eskatu ahal izango dituzte elkarte eta eragileek.

b) Astigarragan egoitza izan behar dute, edo ez badute, ekintzak Astigarragako herriari ekarriko dion onura egoki justifikatu.

c) Eskaini nahi den jarduera, beren estatutuen edo eratzearauen arabera, berezko dituzten helburu, xede edo jarduera-esparruen barruan sartzea.

d) Erabilera-beharren aurreikuspena ekainean egingo da urtero, horretarako Udalaren eskaera-orri ofiziala bete eta memoriarekin eta urte berrirako prestatutako plangintzarekin batera aurkeztuko da. Eskaera bera, irailean egingo da, ikasturtekoa izango delako eta denboraldiko eskaerak irailean egingo direlako, baina kasu honetan ez da beharrezkoa izango memoriarik eta plangintzarik aurkeztea, ez bada espazio erabileran aldaketarik dagoela.

Beste hilabeteren batean egiten diren erabilera-eskariei ez zaie erabilera bermatuko; beraz, aurretiazko zuzeneko erabilera-eskaera egin beharko dute.

e) Erabilera hauek ez daude ordaintzetik salbuetsita, zerga ordenantzetan berariaz ezarritako kasuetan izan ezik. Erabilera-baimena onartutakoan egingo da ordainketa.

f) Baimena ematen den momentutik aurrera, eskaeran adierazitako helburuan egindako aldaketa guztien berri Kultura sailari eman beharko zaio. Halaber, erabilera-eskaera egin duenak, edozein arrazoi dela eta, instalaziora joateari utzi behar badio, aldez aurretik 6 aste lehenago jakinarazi beharko du.

2. Unean uneko erabilera baimenak eskatzeko:

a) Funtzionamendu-taularen ordu libre guztiak erreserben bidez erabili ahal izango dira, baina Udalak erabilera-orduen muga finka dezake behar eta egoeraren arabera.

Asimismo, los grupos municipales del Ayuntamiento de Astigarraga podrán utilizar el teatro o terraza dos veces al año. Si el evento está relacionado con temas que atañen al municipio, contará con la exención contemplada en las Ordenanzas Fiscales y los demás gastos (personal técnico, recepción, etc.) serán asumidos por el Ayuntamiento; de lo contrario, deberá abonarse la tasa correspondiente y los demás gastos (personal técnico, recepción, etc.) serán sufragados por el grupo municipal.

Quedan fuera de los límites establecidos en el presente artículo las reuniones con la ciudadanía organizadas por el propio Ayuntamiento, bien a iniciativa del equipo de gobierno, bien a propuesta de los grupos municipales de la oposición.

Hasta 6 semanas antes de la fecha del evento, tendrán prioridad los grupos municipales y las asociaciones locales que reciban alguna subvención municipal, y seguidamente las asociaciones que tengan su sede en el municipio.

*Artículo 23. Cocina.*

El uso gratuito de la cocina se limitará al personal que trabaja en Erribera, ya sea municipal, de la escuela de música o personal de la empresa subcontratada en Erribera, y únicamente se utilizará durante las comidas de días de trabajo. Asimismo, podrá utilizarse para cursos de cocina organizados por el Ayuntamiento. Únicamente podrán alquilar la cocina las usuarias que alquilen algún otro espacio del centro cultural.

CAPÍTULO III. SOLICITUD DE AUTORIZACIÓN DE USO

*Artículo 24. Requisitos para solicitar la autorización de uso.*

1. La solicitud de uso para curso o temporada se ajustará a las siguientes normas:

a) Las asociaciones y agentes podrán solicitar la utilización de los espacios que estén disponibles tras cumplirse las necesidades de programación previstas o habituales del Ayuntamiento.

b) Deberán tener el domicilio en Astigarraga o, en su defecto, justificar adecuadamente el beneficio que la acción podrá implicar para el municipio.

c) Deberá acreditarse que la actividad que se pretende ofrecer entra dentro de los fines o ámbitos de actuación propios recogidos en los estatutos o normas fundacionales de la entidad.

